

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintzaren lokalak pasa dizkio Mondragon Unibertsitateari

2013/07/19

Gaur goizean, Bilboko Udalak, Mondragon Unibertsitateari eman dizkio Bilbao Ekintzak Uribitarte kalean zituen lokalen giltzak, berrikuntza eta ekintzailetasun zentro berria, "MU-BBF Bilbao Berrikuntza Faktoria" abian jar dezan.

Gurko ekimen hau, apirilean, Bilboko Udalaren eta Mondragon Unibertsitatearen artean sinatu zen lankidetzaren hitzarmenaren baitan jasotzen da. Hamar urtez, ondoren luza daiteke epea, udal eraikin hauek, sormenerako, berrikuntzarako eta ekintzailetza aurreraturako nazioarteko plataforma bertan jartzeko uzten zaizkio Mondragon Unibertsitateari.

Espazioa, 5.900 metro karratu ditu hiru solairutan banatuta. Lehenengoa eta bigarrena, Nervión kaleko 3 zenbakian kokatuta (sarrera Uribitarte 6tik dauka) eta datorren ikasturtean, "MU-BBF Bilbao Berrikuntza Faktoria" hartuko dituztenak.

MU-BBF Bilbao Berrikuntza Faktoria"ren ezaugarri nagusietako bat, hezkuntza, ikerketa, sare ekoizlea eta botere publikoek, gizartearekin eta ekonomiarekin izango duten hartu emana da.

